

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2023ko ABENDUAREN 13ko OHIKO BILERAREN AKTA

Bertaratuak:

José Antonio Rodríguez jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren sailburuordea eta Kontseiluko presidentea.

Ibon Arbaiza jauna, nekazaritza-gaien sail eskudunaren ordezkari gisa.

Miguel Sánchez jauna, osasun-gaien sail eskudunaren ordezkari gisa.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ordezkari gisa.

Miren Josune Irabien andrea, Emakunderen ordezkari gisa.

Ana Priede, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Juan Manuel Balerdi, Euskal Fondoaren ordezkari gisa.

Arantzazu Acha andrea, Mónica González andrea, Nerea Uriarte andrea, Iñigo Eguren jauna, Jesús González jauna eta Jesús Ochoa jauna, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen ordezkari gisa.

Arantza Chacón andrea, Igone Revilla andrea eta Marta Macho andrea, garapenerako lankidetzaren arloko EAEko beste eragile sozial batzuen ordezkari gisa.

Noemí de la Fuente, Kontseiluko idazkaria, hitz egiteko eskubidearekin eta botoa emateko eskubiderik gabe.

Presidenteak gonbidatuta, honakoak bertaratu dira, hitz egiteko eskubidearekin eta botoa emateko eskubiderik gabe:

Leire López andrea, aholkularia, gai-zerrendako 2. puntua aurkezteko.

Iosu Aranzabal jauna, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko Zerbitzuko, gai-zerrendako 2. eta 6. puntuetarako.

Arantza Leza andrea, eLankidetzako idazkaria, saio osoko entzule gida.

Ana Telleria andrea, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko Zerbitzuko, Kontseiluko idazkariari laguntzeko.

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Josu Urrutia jauna, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Maitane Ipiñazar Miranda andrea, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Asier Aranbarri jauna, kanpo-gaien sail eskudunaren ordezkari gisa.

Lucia Torrealday andrea, hezkuntza-gaien sail eskudunaren ordezkari gisa.

Aitor Aldasoro jauna, ingurumen-gaien sail eskudunaren ordezkari gisa.

María Antonia Olabarrieta andrea, gizarteko ongizatearekin eta gizarte-zerbitzuekin lotutako gaien sail eskudunaren ordezkari gisa.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Jone Berriozabal andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna eta Martin Iriberrri jauna, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen ordezkari gisa.

Elsa Fuente andrea, Zaloa Pérez andrea eta Gorka Urrutia jauna, garapenerako lankidetzaren arloko EAEko beste eragile sozial batzuen ordezkari gisa.

Lekua: eLankidetzaren egoitza.

Eguna eta ordua: 2023ko abenduaren 13an, 12:00etan.

Presidenteak 12:04ean eman dio hasiera urteko hirugarren eta azken ohiko bilerari. Lehenengo saioa maiatzaren 9an eta beste saio bat azaroaren 7an egin zirela gogoratu du. Halaber, gogora ekarri du 2023ko urriaren 18an lan-saio bat egin zela online, programen tresnari buruzko dekretu berriaren gainean. Eta bileraren gai-ordena irakurri du, urriaren 27an Batzorde Iraunkorrek adostutakoa:

1. Azaroaren 7ko bileraren akta onartzea.
2. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko GGKE-en lanak Perun eragindako inaktuaren gaineko ebaluazio-txostena (2012-2022) aurkeztea.
3. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren dekretu berria eta lan-plana prestatzeko lantaldearen osaera onartzea.
4. Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako eta 2024ko lan-ildoak ezartzeko lantaldearen osaera onartzea.
5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024ko aurrekontua aurkeztea.
6. Ginea Bissau-Euskadi Osasun Programari buruzko informazioa.
7. Erakundearteko egitasmoen buruzko informazioa.
8. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Lege-proiektuaren egoerari buruzko informazioa.
9. Eskariak eta galderak.

Gai-zerrendaren aurkako arrazoirik aurkeztu ez denez, lehenengo puntuari ekin diote:

1. AURREKO BILERAREN AKTA ONARTZEA

Ez da 2023ko azaroaren 7ko bileraren aktari buruzko oharrik egin, hortaz, bertaratu diren pertsona guztien baiespenez onartu da.



Akta_GLEK_bilkura_23_11_7.pdf

2. EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEKO GGKE-EN LANAK PERUN ERAGINDAKO INPAKTUEN GAINEKO EBALUAZIO-TXOSTENA (2012-2022) AURKEZTEA

Presidenteak Leire López Delgadori eman dio hitza. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak proposatuta, 2023ko apiriletik irailera bitartean Maruja Barrig kazetari feminista perutarrekin batera egindako ebaluazioaren ondorio nagusiak aurkeztuko ditu.



Evaluacion_Peru_Dic 2023.pptx



Informe Final_Peru.pdf



Informe divulgativo_Peru.pdf

Presidenteak eskerrak eman dizkie Euskadiko GGKE-en Koordinakundeari, ebaluazio horren emaitzak espazio honetan partekatzeagatik, eta Leireri, egindako aurkezpenagatik. Eta tarte bat ireki du galderak egiteko, azalpenak eskatzeko, iruzkinak egiteko edo eztabaidatzeko.

Jesus Ochoak interesa agertu du aholkularitzaren esanetan dagoen koordinazio eskasaren gainean. Leirek argitu duenez, Perun hiru koordinazio-espazio daude, eta euskal erakundeek nolabait parte hartzen dute horietan. Dena den, adierazi du kokapen ezberdinetan antzeko gaitan lan egiten dutenen artean ez dagoela elkarrizketarik. Testuinguruaren analisi kolektibo bat behar da, testuinguru horrek inpaktu handia baitu lantzen den errealitatean.

Perun, horrenbeste ezberdintasun kultural dituen herrialde batean (oihana, mendia eta kostaldea, landa-hiria), lan egitea nolakoa den galdetu du Jesús Gonzálezek. Leirek esan du oso handia dela herrialdeko mundu-ikuskeren, hizkuntzen eta genero-harremanen aniztasuna, eta oso interesgarria dela aniztasun horretatik ikaskuntzak nola eraikitzen diren ikustea.

Beste iruzkinik egin ez denez, gai-zerrendako bigarren puntuari ekin diote.

3. LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUAREN DEKRETU BERRIA ETA LAN-PLANA PRESTATZEKO LANTALDEAREN OSAERA ONARTZEA

Presidenteak gogora ekarri du Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Lege-proiektua onartu ondoren sortuko den Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilu berria arautuko duen dekretua garatzeko lantaldea sortzea adostu zela maiatzaren 9ko Kontseiluaren ohiko bileran. Azken hilabeteetan izendapen berriak egin direnez, hautagaitzak aurkezteko epea azaroaren 24ra arte luzatzea erabaki zen azken bileran, azaroaren 7an.

Noemí de la Fuenteri, Kontseiluko idazkariari, eman dio hitza, gai-zerrendako puntu honetaz hitz egiteko.

Noemí gogoratu duenez, Kontseiluaren barne-erregelamenduko 15.1. artikulua araberak, osoko bileran onartu behar da lantaldeen sorrera, baita horien osaera, helburua, funtzioak eta iraupena ere. Osoko bilkurak honakoa onartu du guztien adostasunez:

Helburua: Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua erregulatuko duen araudia garatzeko proposamen bat lantzea.

Gutxi gorabeherako iraupena: 6 hilabete.

Osaera:

- Eusko Jaurlaritza: Noemí de la Fuente (laguntza teknikoa) eta Ana Rojo (laguntza juridikoa)
- Foru-erakundeak: Maite Sandoval (Bizkaiko Foru Aldundia)
- Tokiko erakundeak: Juanma Balerdi (Euskal Fondoa)
- Euskadiko GGKE-en Koordinakundea: Martin Iriberry (Alboan Fundazioa)
- Unibertsitateak: Gorka Urrutia (Deustuko Unibertsitatea)
- Koordinakundekoak ez diren erakunde sozialak: Igone Revilla edo Arantza Chacón.

Lan-planari dagokionez, guztien adostasunez onartu da taldeak honako alderdiak aztertzea:

- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren funtzioak.
- Kontseiluaren osaera eta izendapenerako prozedurak.
- Kontseiluaren funtzionamendua (batzorde iraunkorra, lantaldeak... izatearen komenigarritasunaren analisia barne).
- Txostenak egitea; bereziki, euskal lankidetzaren egoeraren gaineko bost urtean behingo txostena.

Horretarako, une honetan Kontseilua arautzen duen araudia (1/2007 Legea, Kontseilua sortu zuena; 158/2008 Dekretua eta haren moldaketa, 197/2014 Dekretua, Kontseilua arautzen dutenak; barne-araudia; 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Lege-proiektua aztertzea proposatzen da, eta Euskadiko beste gai batzuei buruzko Kontseiluen araudiekin eta beste leku batzuetako lankidetzaren arloko araudiekin alderatzea.

2024ko urtarrilerako lehen bilera bat deitzea proposatu du Noemík, dokumentu horiek identifikatzeko eta horien azterketarekin lotutako zereginak banatzeko. Dokumentu horiek ezagutu ondoren, modu zehatzagoan erabaki ahal izango da aztertu eta eztabaidatu beharreko elementuak zein diren, zenbat saio beharko diren eta aditu edo kolektiboren bat gonbidatzea (puntualki edo beti) komeni ote den.

Lanerako denboren gainean galdetu du Iñigo Egurenak, eta ea nola funtzionatuko litzatekeen Lege berriaren onarpenaren eta Kontseiluaren dekretuaren onarpenaren artean. Noemík argitu duenez, Lege berriaren xedapen iragankorretako batean jasota dago Kontseilua erregulatzen duen araudi berria onartu bitartean aurrekoarekin funtzionatuko dela.

Gainera, Noemík jakinarazi duenez, Kontseilua erregulatzen duen 158/2008 Dekretuaren 4. artikulua araberak, Kontseiluko kideen izendapenak hiru urteko indarraldia du, iraupen bereko luzapenak egiteko aukerarekin¹; eta azkenekoz 2021eko martxoan berritu zen, hortaz, 2024an berritu egin beharko da —urte horretan, gainera, hauteskunde autonomikoak egingo dira—. Hori dela eta, lehenengo saioa otsailean egitea proposatu du, eta hurrengoak hauteskunde-egutegiaren eta izendapenen berritze-prozesuaren arabekoak izango direla esan du.

Presidenteak eskerrak eman dizkio, eta gai-zerrendako hurrengo puntura pasatu da.

4. GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARAKO ETA 2024KO LAN-ILDOAK EZARTZEKO LANTALDEAREN OSAERA ONARTZEA

Presidenteak gogoratu duenez, Kontseiluaren azken ohiko bileran, azaroaren 7an, garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldeari berriro ekitea adostu zen. Noemí de la Fuenteri eman dio hitza, puntu hau lantzeko.

Noemík gogoratu du taldea 2019an sortu zela, politiken koherentziaren gainean hausnartzeko eta honakoetan hartutako konpromisoak zehazteko: 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa; eta 158/2008 Dekretua, irailaren

¹ Tarte horretan norbaitek kargua uzten badu, kargua utzi duenaren agintaldia amaitu arte jarraituko du ordezkoi kideak.

16koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzkoa. Horiek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari esleitzen diote euskal administrazio publikoen politiken koherentziaren jarraipena egiteko funtzioa, urteko txosten bat egitearen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako politiken koherentziarako erreferentzia-esparrua —Eusko Jaurlaritzak garapenerako politiken koherentzia nola ulertzen duen zehazten du—. Lantalde iraunkor edo iraupen luzeko lantalde honek funtzionamendurako erregelamendu propioa duela gogoratu du.

Azaroaren 7ko bileran taldeko izendapenak berritzea adostu zela eta hautagaitzak aurkezteko azken egun gisa azaroaren 24a jarri zutela gogoratu du. Atxikitako dokumentuan daude jasotako hautagaitzak. Sartzeko dago Basque Trade and Investmenten izendapena (iragarrita badago ere, ez genuen jaso saio honen egunerako).



Konposizioa_taldea
_koherentzia_politik

Bozketa egin da eta guztien adostasunez onartu da Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldearen osaera.

Jarraian, 2024rako lan-ildoei buruz eztabaidatzeko tarte bat ireki da.

Urtean txosten bat egitearen helburua bete ahal izateko, metodologia bat definitzearen erronka ezartzea iradoki du presidenteak. Noemik gogoratu du Hezkuntzako txostena egiteko ELGAren [autoebaluazio-metodologia](#) egokitu zutela, baina egokitzapena balioztatzeko berriro ere testatu beharko litzatekeela. Eta adierazi du Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak ere garatu zuela [analisi-metodologia](#) bat, foru mailan aplikatu zuena. Jesús Ochoak gehitu du metodologia hori gerora udal mailan ere aplikatu dutela, Donostiako Udalean. Joseanek adierazi du aurrerapen handiena zerk ahalbidetu dezakeen definitu behar dela: gaiaren araberako lanketak, sailaren araberakoak edo erakunde osoarenak.

Estatu mailako “Futuro en Común” plataforma [politiken koherentziaren jarraipen-sistema](#) bat garatzeko egiten ari den lana aipatu du Arantza Achak.

Jesús Gonzalezek galdetu du ea hemendik gutxira egingo diren hauteskondeek eta egungo lege-proiektuaren (erantzukizuna Lehendakaritzarena izango dela dio) onarpenak zer neurritan eragin diezaieketen lantaldearen osaerari eta lan-planari.

Jesús Ochoak adierazi du sailei zuzendutako sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren falta sentitu duela. Gogoratu du jardunaldi interesgarri batzuk antolatu zirela, baina ez dela gaiarekin jarraitu. Puntu horretan aurrerapausoak ematen hastea iradoki du.

Joseanek hausnartu du politiken koherentzia erakunde transbertsalago batek gidatu beharko lukeela, eta ez eLankidetzak; izan ere, Eusko Jaurlaritzako sail guztiei eragiten die, zeharka. Bestetik, jakinarazi du “Enpresa eta Giza Eskubideen Plana” garatzen ari direla, Giza Eskubideen Agenda Globalaren ildotik. Aste batzuk barru eskuragarri egongo da, eta taldearen barruko kontraste-espazio batean aurkeztu liteke.

Noemí de la Fuentek planerako 4 ildo ezartzea iradoki du, Kontseiluko kideek emandako ideiak jasota eta 2024ko lan-testuingurua aintzat hartuta:

- (i) Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak Donostiako Udalarentzat egindako txostenaren analisia.
- (ii) “Futuro en común” plataformak proposatutako jarraipen-sistemaren analisia.
- (iii) Enpresa eta Giza Eskubideen Planaren kontrasterako espazioa.
- (iv) Prestakuntza-proposamen baten diseinua.

Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldearen plana bozkatu dute, eta boto-eskubidea duten bertaratutako pertsona guztien adostasunez onartu dute.

Presidenteak eskerrak eman dizkio, eta gai-zerrendako hurrengo puntura pasatu da.

5. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024KO AURREKONTUA AURKEZTEA.

Presidenteak gogoratu du Kontseiluaren aurreko bileran, azaroan, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta eLankidetzaren aurrekontuak aurkeztu zituztela; eta iragarri du bilera honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024ko aurrekontu-proiektua aurkeztuko duela Ana Priedek.

Arabako Foru Aldundiko titularrak eta ordezkariak ezin izan dutela etorri adierazi du, agendarekin lotutako arrazoiengatik. Ohiko moduan, 2024ko lehen bileran erakunde bakoitzak Legebiltzarrak eta Batzar Nagusiek onartutako aurrekontuak aurkeztuko dituela gehitu du (ekitaldirako aurreikusitako plangintza eta deialdiez gain).

Ana Priedek, aurkezpenarekin hasteko, aurrekontuak ez daudela onartuta argitu du. Abenduaren 5a izan zen zuzenketak aurkezteko azken eguna, eta oposizioaren babes behar dute aurrera atera ahal izateko.



2024_aurrekontua_G
FA.pptx

Ana Priederen aurkezpenaren ondoren, presidenteak galdera-erantzunetarako txanda bat ireki du.

AKUALen ekarpena lankidetzatik ala ingurumenetik egiten den galdetu du Jesús Ochoak. Anak argitu du lankidetzatik egiten dela ekarpena, eta ingurumenak gaitasun teknikoak bakarrik eskaintzen dituela.

Jesús Ochoak aldundiaren politikaren gaineko hausnarketa bat egin du. Izan ere, haren aurrekontua murrizten ari da urtetik aurrera, Lankidetzarako legearen aurreproiektuak % 0,7rantz joateko dioen arren.

Ana Priedek erantzun du sail guztiek izan dituztela murrizketak, neurri handiagoan edo txikiagoan, ongizate sozialak izan ezik.

Presidenteak eskerrak eman dizkio, eta gai-zerrendako hurrengo puntura pasatu da.

6. GINEA BISSAU-EUSKADI OSASUN PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Presidenteak gogoratu du, 2022ko azaroaren 21eko bileran adostu zuten moduan, Ginea Bissau-Euskadi Osasun Programa aurkeztuko dutela. Osasun Sailak, Osakidetzak eta eLankidetzak bultzatzen dute programa, Ginea Bissauko Osasun Publikoko Ministerioarekin eta AIDA GGKEarekin batera. 2022an jarri zen martxan. 2030 Agendaren Lehenetasunen Euskal Programaren proiektu enblematikoen artean dago egitasmo hau.

Paul Ortegari, eLankidetzako zuzendariari, eta Mikel Sánchezi, Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariari, eman die hitza.



GINEA_BISSAU_13_1
2_2023).pptx

Paul Ortegaren aurkezpenaren ostean, Mikel Sánchezek adierazi du Euskadik ematen dituen giza gaitasuna eta osasungintzako ezagutza direla programaren indarguneak. Eta nabarmendu du MIR ikasleek programan parte hartzea sustatzen ari direla, gureetatik ezberdinak diren espezialitate eta testuinguruetan haien prestakuntza osatzea ahalbidetuko dieten kanpoko errotazioen bidez.

Herrialdera bidaiatzen duten pertsonak boluntarioak diren edo esleitu egiten diren galdetu du Jesús Ochoak. Hautaketa-prozesu bat dagoela eta lan-baldintzak mantentzen direla (beste ESI bat balitz bezala) azaldu du Mikel Sánchezek. Osakidetzako pertsona bat osasungintzako lankidetzak koordinatzeko izendatuta dagoela gehitu du.

Herrialdean izandako esperientziatik ikaskuntzak eskuratzeko mekanismorik ezartzen al den galdetu du Igone Revillak. Esperientzia bi aldeentzat interesgarria dela erantzun du Mikel Sánchezek. Egitasmo honek, epe luzera, euskal osasun-sistema indartzen duela adierazi du Paul Ortegak.

Genero arloko prestakuntza/sentsibilizazioa ematen al den galdetu du Jesús Ochoak. Bigarren urte honetan inplementatzen ari direla erantzun dio Paul Ortegak.

Norgehiagoka-proiektuetan erabiltzen diren ikuspegi berdinak aplikatzen ari al diren galdetu du Jesús Gonzalezek; zergatik hartu duten aintzat Ginea Bissau, eta ez Kongo, Senegal edo Ruanda, non lanerako tradizio handiagoa dagoen; eta zergatik lan egiten duten AIDArekin, eta ez osasun arloko euskal GKE batekin, zeinek esperientzia ikaragarria duten ikuspegietan.

Mikel Sánchezek erantzun du aurrez egindako bilera askoren emaitza dela bidaiari; Peruko misioak izandako arrakastaren ondoren, esperientzia mota hauetan sakondu ote zitekeen aztertu zutela. Eta Mugarik Gabeko Medikuekin hitz eginda, herrialde horretan lan egiteko zirkunstantzia egoki asko ikusi zituztela.

Paul Ortegak argitu du eLankidetzaren lehentasun geografikoa Afrika dela, baina kontinentea oso zatituta dagoela lankidetzari dagokionez. AIDA GKE-ari dagokionez, adierazi du 10 urtetik gorako esperientzia duela arreta sozio-sanitarioaren arloan, Madrilgoa izateaz harago.

Gainera, herrialdeko espezialista kopurua oso txikia dela esan du Noemík. Horrek prestakuntzaren/espezializazioaren arloan lan egiteko aukera irekitzen du, eta hor handiagoa izan daiteke inpaktua.

Erreferentziazko ospitalea izanik, profesionalen gaitasunak beste zentro mediko batzuetara iritsi al daitezkeen galdetu du Arantza Achak. Lana, hasiera batean, ospitalean zentratzen dela argitu du Mikel Sánchezek; aztertu dutela eskualdeko osasun-zentroetako lehen mailako arreta, baina ez dagoela nahikoa baliabiderik ahalegin handiagoa egiteko.

7. ERAKUNDEARTEKO EGITASMOEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Presidenteak Juanma Balerdiri eman dio hitza puntu hau lantzeko.

Euskal Fondoak koordinazio-espazio bat dela eta bertan foru erakundeek eta tokiko erakundeek bat egiten dutela gogoratu du Juanmak. Era berean, eLankidetzak eta Euskal Fondoak PLATFORMAN elkarrekin parte hartzen dutela nabarmendu du. Eta erakundearteko egitasmoen aurkezpen labur bat egin du.



erakundearteko_ekim
enak.pptx

Azkenik, identifikazio-fasean Saint Louisen, Senegalen, erakundearteko elkarlanerako aukeraren bat ikusi dutela jakinarazi du. Eskualdeko eragileak eta aukerak arakatzeko lehen txosten bat egin da Gasteizko Udalaren laguntzarekin, eta lan tekniko instituzionala egin da lan arlo posibleak identifikatzeko. Eta, oraindik zehaztu gabe badago ere, ziur asko, antolamenduarekin, katastrooarekin eta fiskalitatearekin lotutako gaitasun administratiboak indartzea izango da lanaren helburu nagusia.

Presidenteak eskerrak eman dizkio, eta gai-zerrendako hurrengo puntura pasatu da.

8. LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGE-PROIEKTUAREN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Presidenteak Paul Ortigari, eLankidetzako zuzendariari, eman dio hitza, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Lege-proiektuaren egoera azaldu dezan.

Legea, une honetan, zuzenketak aurkezteko fasean dagoela jakinarazi du Paulek, eta fase hori abenduaren 19an amaituko dela. Osoko zuzenketaren bat balego, osoko bilkuran defendatu beharko litzatekeela adierazi du, eta abenduaren 28ko osoko bilkuran landuko litzatekeela. Eta urtarrilaren hasieran zuzenketa guztiak argitzeko txosten bat osatuko dutela esan du.

Koordinakundeak duen informazioaren arabera, Voxek osoko zuzenketa aurkeztu duela esan du Jesús Gonzalezek.

Presidenteak esan du legea ez dela luzea eta, hortaz, ponentzia-lana azkarra izango den ustea duela. Legebiltzarra desegin ezean, urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran Legebiltzarreko osoko bilkura batera eramango dutela gehitu du.

9. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Norbaitek eskaririk edo galderarik duen galdetu du presidenteak.

Landu beharreko gai gehiago ez dagoenez, presidenteak amaiera eman dio saioari, 14:20ean. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak 2023an zehar izandako parte-hartzea, egindako lana eta izandako inplikazioa eskertu ditu, eta urtea ondo amaitzea eta 2024a ongi astea opa izan die bertaratuei.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

JOSE ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**